



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO
	ITUNDUA
	FRANQUEO
	CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

2017ko URTARRILA - 180. zenbakia

## Arabian, badok hamahiru!

**Otsailaren 5ean abiatuko da Arabako Bertsolari Txapelketako edizio berria, 18 parte-hartzaileekin.**

"Sarea, kontzeptu arraro hori. Arrainak, jendea, baloiak, gauzak harrapatzeko erabili dugu betidanik, eta funtzio horri lotuta iritsi da gureganaino. Gaur egun, ordea, beste zentzu bat hartu du. Sarearen bidez lotzen dugu gure burua beste batzuekin, eta sare-egitura duten erakunde eta egitasmoak dira, gaur egun, interesgarrienak. Zer dira, adibidez, Arabako bertso-eskolak, kantuan dibertitu nahi duten horien sare eder bat baino? Horixe baita sarea: harremanak, loturak".

Horregatik, gogoeta horretatik abiatuta, Arabako Bertsolari Txapelketak armaiarma sare bat aukeratu du bere 13. edizioaren irudi nagusi gisa. Horren bitartez, bertso-eskolen sarearen balioak azaleratu nahi ditu Arabako Bertsozale Elkarteak: elkarlana, mugimenduaren egituratzea, harremana, taldea...

Otsailaren 5ean abiatuko da Arabako Bertsolari Txapelketa, Langraizko Gizarte Etxean eta apirilaren 1ean amaituko da, Gasteizko Principal Antzokian. Osozara, zazpi saio jokatu dituzte parte hartuko duten 18 bertsolariek. Bertsolari bakoitzak bina finalaurreko jokatu ditu, ligaxka formatuan.

### Otsailean, hiru saio

Orain dela bi urte egitura berria jarri zuen martxan Arabako Bertsolari Txapelketak. Pasa den urteko udazkenean kanporaketak jokatu zituzten izena eman zuten 24 bertsolariek; horietatik 13 sailkatu ziren txapelketarako, azken edizioko 5 finalista dagoeneko sailkatuta baitzeuden. Horrela osatu dute 18ko taldea. Puntu gehien lortzen dituzten sei bertsolariak sailkatuko dira Gasteizko finalerako.

Otsailean hiru saio izango ditu Arabako Bertsolari Txapelketak: 5ean, Langraitzen; 12an, Zigoitian eta 19an, Dulantzin. Martxoan, berriz, finalaurrekoan bigarren itzulia jokatu da, Legution, Laudion eta Aramaion. Saioterako sarrerak egun berean salduko dituzte, tokian bertan.

Ohi bezala, txapelketaren inguruko informazio osoa [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunearen barruan aurkituko duzue, ekimen honi eskainitako atal berezian. Era berean, Bertsoa sareko plazak jarraipen berezia egingo dio txapelketari [www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus) webgunean.



**ETXAHUN  
LEKUE ETXEBARRIA**  
Bilbo, 2016-XII-17  
Amaierako agurra

Doinua: Eguzkiak urtzen du han goian

Lehen eupada senide, lagun ta etxeko lau izarrontzat, gogoan dodaz bertso eskola ta eguezteneroko aitortzak. Hasikerako maisu zirenak ta gaurko ikasle zorrotzak, Almeriaraino joan-etorriko bitak indau nire ahotsak. Ta berez doble pozten nauenez inguruko danen pozak, bigundualdi bat hartu berri dau nire harrizko bihotzak. Hau euskal kultur zein herrigintzan gogoz zabizienontzat, txapel bana ta gehiau merezi dau zuetako bakotzak.



Principal antzokian izango da finala apirilaren 1ean.//XDZ

F.C.BAIMENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredakzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua  
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

# Bertsolaritzaren liburutegia sarean jarri du Xenpelar Dokumentazio Zentroak

500 liburu eta artikulu baino gehiago beha daitezke online. Bertsolaritzaz gain, ahozko tasunari eta munduko kantu inprobisatuari buruzko material ugari bildu du liburutegiak.

Bertsolaritzari buruz argitaratutako liburu eta aldizkariekin, 1991tik aurrera liburutegia antolatu du Xenpelar Dokumentazio Zentroak; ordutik hona lan ugari bildu dira, bai bertsolaritzaren inguruan eta baita ahozko tasunaren eta munduko kantu inprobisatuaren inguruan ere.

Liburutegian jasotako ikerketa eta bestelako lanak edozeinen eskura daude dokumentazio zentroan bertan, baina orain arte, baliabide faltagatik, ezin izan da interneten ikusi liburutegiari buruzko informaziorik. Azkenean, aurten lortu da liburutegiko katalogoa Bertsolaritzaren Datu-Basean txertatuta interneten erakustea. Honako helbidean dago liburutegia kontsultagai: <http://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia>

Bertan bertsolaritzari buruz idatzi den gehiena aurkitu ahal izango da. 548 liburu eta artikulu interneten bertan irakurtzeko eran daude eta gainerakoak, paperezkoak, dokumentazio zentroan kontsulta daitezke.

Munduko kantu inprobisatuaren inguruko argitalpenak biltzeko ahalegina ere egin da. Munduan zehar bidaiatu duten bertsozaleen laguntza ezinbestekoa izan da liburutegian eskaintzen diren hainbat herrialdetako kantu inprobisatuari buruzko liburuak eskaintzen ahal izateko. Guztira, ia 6.600 lanei buruzko datuak eskaintzen dira.

## Ikerketarako datuak, eskura

Bertsolaritza eta kantu inprobisatuari buruzko ikerketak laguntzeko asmoz, datu-base akademikoetan gai honi buruz dauden artikulu eta liburuen erreferentzia bibliografikoak ere jaso dira. 900 argitalpenen berri bildu ahal izan da, eta etorkizunean bilketa honekin jarraituko du Xenpelarrek, Kulturarte Mapa egitasmoa aberastuz eta bertsolaritza munduan kokatzeko ahalegina eginez.

Liburutegia datu-basearen erabilera errazteko asmoz, emaitzen zerrendak gehiago zehazteko iragazkiak eskaintzen dira: online irakurri daitezkeenak, edota formatu motaren eta egilearen arabera emaitzak zorrotz daitezke. Era berean, liburutegiko datuak modu estandarretan eraiki eta aurkeztu dira; hala, ikertzaileek normalean erabiltzen dituzten programetara esportatu daitezke datuak.

Aurrera begira, liburutegian hainbat hobekuntza egin nahi dira: liburuen mailegu sistema ezartzeko baliabideak bilatu nahi dira, eta udal liburutegien zerbitzuarekin bateratzeko aukerak aztertu, erabiltzaileei erraztasun handiagoak emateko.

**BDB Bertsolaritzaren datu-basea**

Euskara English Français Español

Guri buruz | Non gauden | Zerbitzuak | Informazio eskaera | Bilaketak nola egin

Agenda Biografiak Doinutegia Bertsoak Datu Base gehiago Bertso-eskolak

**Liburutegia** Atal honi buruz gehiago jakiteko

Bilaketa berria Bilaketara itzuli Emaizetara itzuli Esportatu

Bilaketa kriterioak  
Adierazpideak (autoritatea): Bertsolaritza

**Bilaketa zehaztu**

**Eskuragarritasuna**

- Online **546**
- Liburutegian **2410**
- Erreferentzi bibliografikoa **19**

**Informazio formatua**

- Liburuak **1265**
- Artikulua **390**
- Dokumentua **60**
- Prentsa artikulua **825**
- Audioa **346**

**Emaitzak: 2975**

eu	<b>Dantza-kopla zaharrak</b> Egileak: Perurena, Patziku Non: EGAN : Euskaleniaren Adiskideen Elkarteko Boletinarene Euskarazko Gehigarria, 1-2 zbk, 2008, 239-257 or. Artikulua: Euskara. Liburutegian
eu	<b>"Amenaza bueno" edo finaleko kronika</b> Egileak: Egaña, Andoni Non: Bertsolari aldizkaria, 44, 2001 abendua, 12-27 or. Prentsa artikulua: Euskara. Liburutegian
eu	<b>"Aterpe" 48 urterekin debutatu zuen bertsolaria</b> Egileak: Agirre, Joxean Non: Bertsolari aldizkaria, 14, 1994 ekaina, 46-53 or. Prentsa artikulua: Euskara. Liburutegian
	<b>"Bertso-paperak" Xenpelar saria</b>

548 liburu eta artikulu interneten bertan irakurtzeko eran daude.

# Erradikalak gara proiektuak irabazi du I. Lanku Beka

**Beatriz Egizabal eta Ane Labaka proiektuaren arduradunek 8 hilabeteko epea izango dute saritutako lanaren gidoi osoa egiteko.**

Lanku Bekaren lehen edizioa jarri zuen martxan Lankuk pasa den udazkenean. Bertso edukien sormenerako beka honen helburuak bi dira: batetik, bertsolaritza muinean duten emanaldi berriak sortzea eta laguntzea eta, bestetik, sortzaileen eta Lankuren arteko elkarlana sustatzea.

Deialdia egin eta lau izan dira aurkeztu diren lanak, hiru helduei zuzendutakoak eta bat haurrei. Horien artean erabaki behar izan du epaimahaiak proiektua gauzatzen laguntzeko beka nori eman; eta, azkenean, gidoi onenaren beka Ane Labaka eta Beatriz Egizabalen *Erradikalak gara* lanari ematea erabaki

du. Bertso jarriak eta bakarrizketak uztartzen ditu proiektuak, feminismoaren inguruko gogoetan. 800 euroko ordainsaria jaso dute irabazleek eta orain 8 hilabeteko epea izango dute saritutako lanaren gidoi osoa egiteko.

Gazteei zuzendutako bigarren sari bat zegoen, baina hura eman gabe uztea erabaki da. Lankuk lehenengo deialdi honetan parte hartu duten bertsolari eta gai-jartzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkie eta hurrengo urteetan ekimen honi jarraipena eman nahi diola gaineratu du.

## 25 saio baino gehiago eskainiko dira Bertso Korrikaren eskutik

**Martxoaren 30ean ekingo dio bideari 20. Korrikak, Otxandiotik hasi eta Iruñearaino. Aurrez Korrika Kulturalarekin girotuko da Euskal Herria eta tartean izango da Bertso Korrika egitasmoa. Bertso saioek eta *Erradikalak gara* emanaldiak osatuko dute eskaintza.**

Bi urtetik behin Euskal Herria zeharkatzen duen *ttipi-ttapa* laster izango da berriro ere gurean. Martxoaren 30ean hasiko da Korrika hogeigarren aldiz, oraingoan Otxandion hasita, eta apirilaren 9an bukatuko da Iruñean. Euskararen aldeko festa ibiltaria hasi aurretik, Korrika Kulturalaren aitzakian hainbat ekitaldi gauzatuko dira; tartean, Bertso Korrikaren baitakoak.

Bertso Korrika AEKk eta Bertsozale Elkartek sustatutako egitasmoa da, bertso eskolen, euskaltegien eta Lanku Kultur Zerbitzuen elkarlanarekin. Euskal Herriko bertso eskolen sarearen bidez, 25 bertso-saio baino gehiago eskainiko dira martxoan:

Agurainen, Zarautzen, Iruñean, Durangon eta Hendaian izango dira saioak, besteak beste. AEKko euskaltegiekin egiten dira saio hauek, euskaraz ikasleak bertsolaritzara hurbilduz.

Bestalde, Lanku Kultur Zerbitzuek berriki saritutako eta bere eskaintzan txertatutako *Erradikalak Gara* emanaldia ere gozagai izango da, Ane Labaka bertsolariaren eta Beatriz Egizabal ipuin kontalariaren eskutik.

Informazio gehiagorako eta etengabe eguneratutako agenda ikusteko [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarira sar zaitezke.



Maidar Arregi eta Ane Labaka aurreko Korrikaren aurkezpenean.//XDZ





## Puntua jarrita

MAIALEN AKIZU BIDEGAIN

Gurrundik datozen kontuekin zabilta Gurrul Bai, egia da, guk bertso mundua, genero aldetik anitzago bizi izan dugu, baina zure baimenarekin belaunaldiari buruz duzun kezkarri heldu nahi nioke, aspaldian nik ere bueltaka darabilt eta.

Eusebio Igartzabalek pasa zizun lekukoa eta izugarri poztu nintzen. Aizkorritik Erniora, mendearen hiru laurden bete dituen bertsolari gabiriarra hogei urtekoari galdezka. Bertsolariaren soziologia zein bertsolariak sortutakoa oso kuriozoso da eta ezaugarri berezien artean bat, eta politenetako bat akaso, intergenerazionala izatea da. 60 urtekoak 18koarekin osatu izan du puntuka bertsoa, elkarri adarra jo diote zein saio osteko tragoa konpartitu.

Belaunaldi bakoitzak bizipen desberdinak izan ditu eta testuinguru bakoitzak baldintzatzen gaitu. Determinatu ez. Gure kasuan, gure adin-tarte bertsoak nahiko erraz topatu ditugula iruditzen zait; bertso-udalekuek funtzio hori bete dute, eta behin hamar egunak bukatzean ere, sare sozialak lagun, bertsoa aitzakia bikaina izan da elkartzeko.

Harreman zoragarriak egin ditugu, baina zalantza daukat batzuetan taldea indartu eta geure artean hain eroso izateak ez ote duen beste talde batzuekin harremanak oztapatzen neurri batean.

2017a, belaunaldi desberdinak elkartu asmoz dator, besteak beste. Gipuzkoan Herriarteko txapelketa egitekoa da eta bazterrak mugitzen hasi da dagoeneko. Formatu berean 1999an egin omen zen azkena. Orduko konturen bat entzun izan diot Aitor Albisturri eta aurtengoan berriro ere kantuan jardungo omen da. Kontatu izan duzu zuek ez zenutela "belaunaldi talderik" izan. Bertsoak elkartu zaituztela. Azken herriartekoan gaxtea zinen, baina aurren, amigo! Oreretako rockero zaharra ze bela(g)ulanditan dator?

# Koplak

## Kanporaketak jokatuta, prest da Nafarroako Bertsolari Txapelketa


Abenduan jokatu zen Iruñean 2017ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako kanporaketa saioa. Handik lau bertsolari sailkatu ziren otsailaren 18an hasiko diren final laurdenetarako. Osotara, 35 bertsolari eman dute izena Nafarroako Bertsolari Txapelketan eta, kanporaketaren ostean, 30 izango dira final-laurdenetan hasiko direnak.

## Poto-Finixa



## Bueltan da Herriartekoa Gipuzkoara

Ekimen berria jarriko du martxan otsailean Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak: Herriarteko Txapelketa. Duela urte batzuk egin zuten halako esperientzia eta orain berrituta dator. Hilaren 28an aurkeztuko dute Gipuzkoako Herriartekoa eta otsailean abiatuko da.

<p>Kontratazioak eta informazio gehiago:</p>  <p><b>Lanku</b> www.lanku.eus 943 26 07 55</p>	<p><b>TESTURAK</b></p> <p>TESTUAK: TESTUAK, ZABALETIK, ESTURA</p> <p>LITERATURA TESTUAKIARIATUTAKO BERTSO SAIOA</p> 	<p><b>OHOLTZA</b></p> <p>BENAT KROLEM</p> 	<p><b>PETRESKU ETZI EZ ETSI!</b></p>  
---	---	---	--

PUBLIZITATEA